

Gero, ijitoarengana biratu zen. Hura
dardarka zegoen. [bi perpaus]

Gero, ijitoarengana biratu zen, **zeina**
dardarka **(bait)zegoen**. [azalpen-aposizio egokia]

??Gero, ijitoarengana biratu zen, **dardarka zegoena**.
[azalpen-aposizio desegokia]

(Ikus [Euskaltzaindiaren 109. araua](#), [EHULKUren aholkua: Aposizioa 1](#))

?Gero, ijitoarengana biratu zen, dardarka
zegoenarengana. [dardarka zegoen harexengana]

- Gero, dardarka zegoen ijitoarengana biratu zen.
[erlatibozko perpaus zehaztailea: zein ijitorengana]

Akatsak aurkitu dituzte Veneziako zubi berrian, **zeina** Calatravak diseinatu **baitu**.

[azalpen-aposizio egokia]

?? Akatsak aurkitu dituzte Veneziako zubi berrian, Calatravak diseinatu **duena**. [azalpen-aposizio desegokia]

? Akatsak aurkitu dituzte Veneziako zubi berrian, Calatravak diseinatu **duenean**. [Calatravak diseinatu duen horretantxe]

- Akatsak aurkitu dituzte Calatravak diseinatu duen Veneziako zubi berrian. [erlatibozko perpaus zehaztailea: zein zubitan]

Bizkarra ematen diote **lurrez eta harriz**
josiriko anabasa hari, zeina hazten eta
katramilatzen ari **baïta** txaluparen bi
aldeetan. [azalpen-aposizio egokia]

Ivo Andritx, *Zubi bat Drinaren gainean*. [Euskaratzailea: Karlos Zabala]

?? Bizkarra ematen diote **lurrez eta harriz josiriko anabasa hari**, hazten eta katramilatzen ari **dena** txaluparen bi aldeetan. [azalpen-aposizio desegokia]

? Bizkarra ematen diote **lurrez eta harriz josiriko anabasa hari**, hazten eta katramilatzen ari **denari** txaluparen bi aldeetan. [txaluparen bi aldeetan hazten eta katramilatzen ari den harexeri]

- Bizkarra ematen diote txaluparen bi aldeetan katramilatzen ari den lurrez eta harriz josiriko anabasa hari. [erlatibozko perpaus zehaztailea: zein anabasari]

Beraz, bi aukera ditugu horrelako esaldietan:

1. Aposizioa egin nahi bada, **ZEINA** erakoak erabili behar dira.

Opari bat ekarri zion alaba zaharrenari, (zeina) kutunena baitzuen.

2. **ZEINA** saihestu nahi bada, beste joskera batzuk erabili behar dira: juntadura, alborakuntza...

Opari bat ekarri zion alaba zaharrenari. Alaba hura zuen kutunena.

Opari bat ekarri zion alaba zaharrenari. Izan ere, alaba hura zuen kutunena.

(...)



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



-NA erakoak arazotsuak eta desegokiak dira, oro har. Honelakoak, esaterako:

- ?? Hitz goxoak zituen Anerentzat, maite zuena > (zeina) maite baitzuen
- ??Mirenen ondoan jesarri zen, gustukoa zuenarekin> (zeina) gustuko baitzuen
- ??Ostiralero zuen hitzordua Jonekin, berandu etortzen zena > (zeina) berandu etortzen baitzen

Jakina, badira **-NA** erako perpaus egokiak. Esaterako:

- Galaxien forma espirala problema teoriko konplexu bat da, oraindik ongi konprenitzen ez **dena**.
- Badugu eskema kontzeptual bat edozein objektu erreal konprenitzeko balia **dezakeguna**.
- Adiskide min bat dauka otzana, baketsua, euli bati ere gaitzik egingo ez **liokeena**.

Beste fitxa batean jorratuko ditugu halakoak.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

